

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

SEGURTASUN SAILA

728

EBAZPENA, 2023ko otsailaren 2koa, Segurtasun Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, zeinaren bidez jakinarazten baita Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-oholean argitaratu dela 2023ko urtarrilaren 30eko Ebazpena, kide batzuk Ertzaintzaren Ikuskapen Eskalako Komisariondoko Kategoriako karrerako funtzionarioak izendatzen dituen.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren zuzendari nagusiak 2021eko abenduaren 13ko eman zuen Ebazpenaren, Ertzaintzaren Egiterapen Eskalako Komisariondoko Kategorian sartzeko hautaketa prozeduraren deialdiari buruzkoaren, hamabigarren oinarriarekin bat etorriz (EHAA, 2. zk., 2022ko urtarrilaren 4koa), eta Segurtasun Saileko egitura organiko eta funtzionalari buruzko urtarrilaren 19ko 6/2021 Dekretuaren 9. artikulua ematen dizkidan eskumenak direla bide, ondoko hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Jakinarazten da 2023ko otsailaren 2an argitaratu dela Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-oholean Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen 2023ko urtarrilaren 30eko Ebazpena, kide batzuk Ertzaintzaren Egiterapen Eskalako Komisariondoko Kategoriako karrerako funtzionarioak izendatzen dituen.

Bigarrena.– Ebazpen honekin ez da amaitzen administrazio-bidea, eta interesdunek, haren kontra, gora jotzeko errekurtsioa aurkez diezaioke Segurtasuneko sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 2a.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,
MIREN GOITIA GABIOLA.